

# Xabier Etxeberria

# TXORIA NINTZELA



Xabier Etxeberria

# TXORIA NINTZELA

1982

1982ko irailaren 28a da.

Italiak irabazi du naranjitoren mundiala eta Ingalaterrak Malbinetako gerra. Brezhnevek Pekini eskua luzatu dio harremanak normaltzeko. USAn Ronald Reagan da lehen-dakari. Leopoldo Calvo-Sotelo Espainian. Urriko hauteskunderi begira, terrorismoaren aurkako borrokan efikazia gehiago, Guardia Zibilaren modernizazioa, alderdi politikoien lege berri bat eta abortuari erabateko ezezkoa dira UCDren programaren ardatzak, “*demokrazia kontsolidatzeko eta politika herritarrengana hurbiltzeko*”.

Felipe Gonzalezek goleadaz irabaziko ditu, dena dela: gehiengo osoa, 10.127.392 boto. Solidaridad Españolak, aurreko urtean estatu kolpea saiatu zuen Antonio Tejeroren alderdi politiko sortu berriak, 28.451 boto.

Erdibana banatu dira malkoak eta barreak ipotx estralurtar baten lagun egiten den mutikoaren istorioa kontatzen duen filmaren aurkezpenean, “E.T.”. ETAk lau polizia nazional hil ditu Errenterian eta militar bat Bilbon azken bi asteetan, baina azarorako gauzak lasaituko direla espero dute agintariek, Joan Paulo II.a Aita Santuak Loiolako santutegia bisitatuko duenean.

–Pilota horrek ez dik balio, zuloa zeukak.

–Hik ere bai, eta?

Barre egin dute taldeko zazpi mutilek Asierren ateraldia-  
rekin. Beti egiten dute barre bere ateraldiekin. Kuadrillako  
zaharrena da, altuena, indar gehien eta pazientzia gutxien  
duena.

Josuk ahoa itxita mantendu du horregatik, nahiz  
eta, neurri batean, denen aurrean lotsatu duen Asierrek.  
Edonola ere, eskuak ferian erositako txandal azul mari-  
noaren poltsikoetan sartu eta irribarre egin du berak ere.  
Hobe dela denekin batera barre egitea erabaki du, bakarrik  
negar egitea baino.

Ile beltza eta oso laburra du Josuk, makinaz moztua,  
aitak eta anaia gazteagoak bezalaxe. Sudur zapala, gaztain  
koloreko begi handiak eta peka mordoxka masailetan, udan  
ugaldu eta ia aurpegi guztira zabalitzen zaizkionak. Amari  
grazia egiten diote semearen pekek, bere aitak –aitona Jose  
Antoniok– antzekoak zituela esaten du, familiako kontua  
dela. Josuk ez du sekula ulertu hori nola jakin dezakeen  
amak, berak bost urte baino ez zituenean hil baitzen aitona  
Extremadurako herri txiki batean, eta apenas duten haren  
argazki pare bat, txuri-beltzezkoak eta guztiz lausotuak.

Edozein modutan, nahiago luke berak peka bakar bat  
ere edukiko ez balu. Gorroto du ispilura begiratzean orban  
txiki haiek denak ikustea bere irudia zikintzen. Txikiagoa  
zenean ur eta xaboiarekin ordubetez aurpegia igurtzi eta  
igurtzi aritu zen komunean, kendu nahian, amak zertan  
zebilen aurkitu eta masaileko pare bat eman zion arte.

Amak egiten dituen makarroiak dira bere janari gustu-  
koena hala ere, tomatearekin eta txorizoarekin. Futbolean  
gelako bigarren onena da, hatzak ahoan sartuta txistu oso  
ozen egiten daki eta metro bat eta hamasei zentimetro

neurtzen du, gutxi samar zortzi urteko mutiko batentzat. Hori aitaren aldeko herentzia omen da.

–Beno, badiagu pilota orduan!

Disimulatu ezin duen harrotasunez hitz egin du Anderrek. Bera izan da pilota aurkitu duena sastraka batzuen artean katigatuta. Handik oso hurre bizi da, jende guztiak *sindikalak* deitzen dion etxadi bateko 12. zenbakian, hirugarren pisua, C atea. Ez daukate igogailurik baina bai etxaurrearen erdia hartzen duen balkoi luzea, hego-ekialdera ematen duena eta bi ate dituen, sukaldetik lehenengoa eta saloitik bigarrena, nahiz eta azken hau ez duten ia erabiltzen, amak korrientea sortzen dela esaten duelako.

Han kanpoan, barandillan agonduta ia auzo guztia ikus liteke: herriko futbol-zelaia, industrialdera eta *hermanoen* eskolara daraman bidea, urtetik urtera etxe-sailez betetzen ari diren soroak eta, noski, autopista. Anderrek ez du beste anai-arrebarik, orduak ematen ditu autopistari begira. Bi kolore aukeratzea da jolasa –bat berea “alde” eta bestea kontra “anti”– eta autopistatik kolore horretako dozena bat auto zenbatu behar dira. Kamioiek bi puntu balio dute.

Bezperan ere balkoian zegoen aitarekin, baina autopistara ordeztu, kale erditik jende hura guztia ikurrinekin eta lore sortekin nola pasatzen zen begira. Hilerrira bidean ezkutatu ziren poliki, bere etxe atzeko aldapan gora, ez oso urruti. Zertan zebiltzan aitari galdetuta, gudari eguna zela erantzun zion honek lehor. Hain lehor, ez baitzitzaion burutik pasa ere egin galdera gehiago egitea, nahiz eta *gudari eguna* zer zen ez zuen inondik inora ulertu. Ama sukaldera

sartzeko esan eta esan ari zen, *Joxemari, maitea, goazen afaltzera, faborez errepikatuz.*

Arraroa zela pentsatu zuen Anderrek, afaltzeko ordua ez zelako oraindik eta, batez ere, amak aitari *maitea* gutxitan deitzen ziolako. Aitak, hala ere, ez zion entzuten, antza, eta bertan geratu zen, jendea hilerritik behera jaisten hasi eta, halako batean, *txakurrak datoz* esan zuen arte. Anderrek ez zuen txakurrik ikusi. Guardia zibilak bai, bizpahiru furgonetatan ziztu bizian iritsi eta segundo gutxiren bueltan kale erdian zabaldu ziren, kaskoak buruan eta fusilak eskuetan. Aitak besotik oratuta, biak sukalde barrura sartu ziren orduan segituan.

Tiroak entzun zituen Anderrek, garrasiak, jendea korrika. Ikararekin negarrez hasi zen ia. Amak bere aurka estu besarkatu zuen. Aitak, gortina atzetik zelatan, pilotakadak zirela esan zuenean, apur bat lasaitu zen ordea. Hurrengo egunean, ikastolatik irteeran, pilota horietako bat hartu behar zuela esan zion bere buruari. Lagun guztiei erakusteko.

Hain zuzen, Anderrek ekarrirako pilotari begira jarraitzen du Asierrek, arretaz, eskuineko eskuan nolabaiteko samurtasunez hartuta, Danimarkako printzea bailitzan edota Newton sagarrarekin, nahiz eta Newton nor zen ez dakien; ezta, noski, Danimarka non dagoen ere.

Printze izan ala ez izan, serio eta zurrun aztertzen jarraitzen du pilota hala ere, Josuk azken batean arrazoia duela eta pilota hark ez duela balio pentsatuz isilean, gardien fusilaren ondorioz zulo sakon samar bat baitu, hirutik bitan bote okerra emanarazten diona.

Besterik ez dute ordea, eta harekin moldatu behar-ko dutela egin du bere artean, pilota poltsikoan sartu eta *goazen frontoira* esanez besteei. Lagunak irribarrez ikusiz, irribarre egin du berak ere, bere baitarako ilun eta urrun dagoen arren, ordu batzuk lehenago, etxetik irten aurretik lepoan estutu eta azkura ematen dion jertse gorri hura janztera behartu duten unea berrituz.

Kuadrillako handiena den arren, etxeko txikiena da. Arreba bat eta bi anaia zaharrago ditu eta azken hauen arropa ugari berriro erabiltzea suertatzen zaio, baita, tarteka, arrebaren prendaren bat ere, zira urdin argia, mendiko botak edo apur bat estu geratzen zaizkion igandetako galtza marroiak, esate baterako.

Edonola ere, galtza horiek baino askoz gehiago gorroto du izeko Luisik oparitutako jertse gorria, izekok berak josia, berez luzea daukana besoetan eta zabalegi bularrean baina lepotik juxtu-juxtu sartzen zaiona. *Ama, jertse hau kaka bat da* kexatu da horregatik hura janzteko agindu diotenean. Alferreko saiakera izan da ordea, amak plantxatik burua altxatu ere egin gabe erantzun baitio Asierri, hiru anai-arreba nagusiagoen barre artean: *A cada mierda, su mierda.*

Xirimiri azpian astiro ibiliz, beren helmugara iritsi dira laster batean. Frontoira. *Subnormaletako frontoia* deitzen diote, alboan dagoen eraikuntza txiki laranja kolorekora gisa horretako umeak joaten baitira ikastera, atzeratuak eta mongolitoak.

Bestelako jendea ere ibiltzen da ilunabarretan —*droga-diktoak*, gurasoen esanetan—, eta, horregatik edo, zikina egoten da sarri askotan, su txikien arrastoak topa litezke izkinetan, egunkari zaharrak, garagardo botila hutsak eta



pixa putzuak. Horretaz gain, laburra da kantxa –bostera iristen da soilik– eta sabai baxukoa, ez da pilotan jolasteko oso ona.

Auzoan dagoen frontoi estali bakarra da ordea, eta udazkenetik aurrera zaila izaten da inor gabe suertatzea. Honakoan bezala. Euripean kieto geratu dira guztiak, zapuztuta. Hiru ume ari dira pilotan jolasten, beraiek baino urtebete gazteagoak, erdaldunak, eskola publikoan ikasten dutenak. *Hartuta zegok* esan du Josuk nabaria dena deskribatuz, *maketo batzuk zeudek*. Barrez hasi da Asier.

–Maketoak, Josu? Hau bai ona!

–Zer?

–Hi bezelakoak?

–Hi, zer diok? Andereño Arantxak esaten du ikastolan: euskara da euskaldun egiten...

–Isilik egon hadi!

–...

–Perez, hi ez haiz euskalduna berez!

Barre egin dute gainontzeko guztiek ere. Errima errepikatu dute. *Perez, hi ez haiz euskalduna berez*. Eta modu horretan –erdi barrezka, erdi kantari– sartu dira azkenean frontoira. Jolasten ari zirenen partidua etenez, pilota zulo-duna astintzen hasi da Asier, *dispérsense* oihukatzen duen bitartean. Anderrek atzera begiratu du une batez.

–Josu! Etorri!

Josu, baina, euripean dago oraindik, frontoira sartu gabe, gainontzeko guztiez ahaztua. Oraingoan ez du besteekin batera barre egin, ezin izan du. *Perez, hi ez haiz euskalduna berez*. Horren orde, bere indar guztiez negarrari eusten saiatzen ari da, parean duen hormara arretaz begira,

bertan marraztu duten azken pintada buruz ikasten ariko balitz bezala. *Herriak ez du barkatuko.*

Azkenean, ezin izan dio eutsi. Musuzapia atera du malakoak ezkutatzeko, mukiak kentzen ari den plantak eginez. Gainontzekoak ez dira konturatu ere egin hala ere, ez zaie axola, frontoian denak emanda ari dira. Inori agur esan gabe alde egin du etxera.

–Tira, alde hemendik! Frontoia orain gurea da!

Ustekabean hartutako hiru umeek kexa gutxi batzuk egin dituzte hasieran, oihuren bat, baina ez dago eztabaidarik –gehiago dira eta zaharragoak gainera–, berehala libratu dute frontoia. Joaterakoan, hala ere, ahopean zer-bait esan du hiruretan altuenak. Sergio Garrido du izena, baina Garrote esaten diote denek, bere adinerako ohi baino indartsuagoa delako.

Ez Asier baino gehiago, hala ere. Ez zaizkiola oilartxoak gustatzen eta bultzadaka hasi zaio Garridori. Gero eta gogorrago.

–Utzi ezak bakean, Asier, nahikoa duk.

–Zer esan duk?

–Gorra hago? Nahikoa dela. Goazen jolastera.

Aritz du izena, baina denek *Alemana* deitzen diote, edo Alemanaren semea, bere aitagandik baitatorkio ezizena, hura bezala ilehoria, begi argikoa eta handia delako, nahiz eta ez den Europa iparraldean jaioa, alboko herrian baizik.

Ikasturte berriarekin etorri da auzora –ama gaixo omen du, aitona-amonekin bizi omen da– eta besteen gela berean tokatu zaio ikastolan. Neskek berehala gorrotatu dute, ile horia eduki arren arkakuso bat baino zatarragoa delako eta

jolastokira atera bezain laster, egunero hutsik egin gabe, karkaxa lodiak botatzeko ohitura duelako.

Mutilek ere mesfidantzaz begiratu zioten hasieran –kanpokoa da, ez zaio futboleant jolastea gustatzen, ez du asko hitz egiten–, baina, laster, arraro izate hori bere alde gertatu da. Urrutien dagoen masusta preziatuena izaten den bezalaxe, azkenean denek bihurtu nahi izan dute lagunik nahi ez duenaren laguna.

–Bai, mutilak, goazen jolastera.

Anderrek irribarre zabala marraztu du. Ez zaizkio borroak gustatzen. Ez lagunent artean behintzat. Asierrek arnasa hartu eta burua jiratu du. Garrido *oilartxo*a aldapan behera korrika nola egiten ari den ikusi duenean –ia muturrez aurrera erori da putzu batean irrist eginda–, irribarrea atera zaio berari ere. Alemanak karkaxa jaurti du. Anderrek pilota hartu eta, *nirea da sarea* esanez, lauko marrara zuzendu da.

Iluntasunak jolastent jarraitzea erabat ezinezkoa egin duen arte jarraitu dute. Azken ordu laurdenean komikoa izan da egoera kasik. Botea ematen zuen arte ez zen pilota ikusten. Behin baino gehiagotan, oharkabean gainera etorri zaio pilota jokalarietako bati, bere kideent algarak eta burlak eraginez.

Aldarte bertsuan egin dute etxerako bidea. Elkarri zirikak, barrez, umore onean. Ez du atertu, xirimiriak gortina bustia izaten jarraitzen du, ilunabarreko itzaletan ezkutatu bada ere. Izatez, oso farola gutxi daude auzoaren alderdi hartan, horregatik ibiltzen omen dira han drogadiktoak.

Eta horregatik, halaber, ez dute ikusi lehen harri koskorra euren albora erori den unera arte.

–Kontuz!

Alemanak erreflexu onak izan ditu eta berehala markurtu da. Buru gainetik, gertu, oso gertu igaro zaio hurrengo harria. Egiten ari diren etxe berrien zakarrak eta mugitutako lurak pilatzen diren orubetik –beraiek dauden lekutik metro batzuk gorago, estrategikoki kokatuta– harri zaparrada etengabea erortzen ari zaie, izan ere.

–Maketo putakumeak!

Garrido oilobusti hori da harrika ari zaiena, ulertu du Asierrek berehalakoan, frontoitik bidali izanagatik minduta. Berak harrapatzen duenean, zalantzarik gabe benetako garrotea zer den erakutsiko diola egin du bere artean.

Orain ez daukate ezer egiterik orde, handik babesera ahalik bizkorren alde egitea ez bada. Ander izan da ospa egiten lehenengoetakoa. Ehun metro gorago dagoen langileen barrakoitxoaren atzean ezkutatu da, Garrido dagoen orubetik hurre baina haren harrietatik salbu hala ere.

Asier ez da hain arin ibili.

–AAAAA! AMAAAAAA!!

Lurrean luze etzanda geratu da. Handik altxatzeko eta alde egiteko orroka aritu zaizkio bestiak. Alemana bakarrik bertaratu da, baina, harrien beldurrik gabe. Asier marru bizian hasi denetik ez da besterik erori, dena dela.

Lagunaren ondora iritsi denean odola ikusi du Alemanak honen jertsearen gainean, galtzetan, lurra zipriztintzen. Eskuak ere blai ditu. Zauria estaltzeko aurpegira eraman ditu Asierrek, minez garrasika jarraitzen duen bitartean.

Harrikadak eskuineko begia lehertu dio.

Alemanak, nolabait, lurretik altxatzen lagundu dio. Beso batetik heldu eta oinez ahal duten bizkorrena Asierren

etxeraino joan dira, auzoaren beste muturrean. Kuadrillako gainontzekoak ere haien atzetik doaz, aurpegi luze eta serioz hasieran, bidean harrituta galdezka hasten zaien guztiei azalpen guztiak emanez gero.

–Maketo batzuk harrika hasi zaizkigu goiko orubean eta begia lehertu diote Asier Manterolari.

Bere etxeko txirrina jo eta eskaileretan goraino lagundu diote. Amak, ikusi orduko eskua ahora eraman eta garrasi egin du. Aita ez dago. Anaia zaharrena haren bila irten da kalera, lagunekin Txokon egongo da ordu honetan, txikiteoan.

Odol asko galdu du Asierrek ordurako. Zapi handi bat lotu dio amak begiaren gainetik buru atzeraino. Jarioa eteteko balioko du agian eta, batez ere, zauria estaliko du. Ezin du jasan begi lehertuaren irudia.

Aita hamar minutura iritsi da eta, ezer galdetu gabe, seme gazteena hartu eta eskaileretan behera eraman du, kotxera. Ama atzetik korrika joan zaio toalla zahar batekin, eserlekuen gainean jar dezaten. Odol orbanak kentzea oso zaila da eta erosi berria dute peugeota.

Han sartuta joan dira aita-semeak ospitalera, eta orduan galdu dute bistatik lagunek, etxeko atarian euren artean berriketan eta zer gertatuko zain geratu direnak. Isil-isilik joan da etxera Ander, pentsakor.

Hurrengo egunetan, ikastolan, Asierren berri izan dute pixkanaka-pixkanaka. Eskuineko begia ezin izan omen diote salbatu eta, ordu luzez iraun zuen ebakuntza batean, kendu egin behar izan omen diote. Pentsatze hutsak hotzikarak eragin dizkie guztiei.

Kendutako begiaren ordez, kristalezkoa ipiniko diotela jakin dute handik gutxira, eta horregatik dagoela oraindik erietxean lotan, begi berriaren zain. Aukera izanez gero, zein koloretako begia jartzea nahiko luketen izan da harrezkero gelakideen artean eztabaida nagusia jolas-orduan. Urdina aukeratuko lukete gehienek, eta beste batzuek berdea. Beltza bakar batek aukeratu du, Alemanak, berez urdinak baititu bereak.

Horretaz gain, jakina, mendekua da beste mintzagaia mutilen artean.

—Popeye itzultzen denean, maketo horiek txikituko ditugu.

Horrelaxe hasi baitira deitzen Asierri orain. Popeye. Ezizen sinpatikoa dela aipatu du Josuk; Asier falta denez Alemanaren oso gertukoa bihurtu da, eta haren ordezhonek egiten ditu orain graziak lagun artean, baina Anderri ez zaio iruditzen ezizen berriak Asierri beraiei adinako graziarik egingo dionik.

Hori ez da Ander gehien kezkatzen duena, ordea. Harrikadaren egunetik, korapilo handi bat dauka urdailaren erdian, gaeuz lo hartzea ere galarazi egiten diona batzuetan. Erasotik babestuz langileen txabolaren atzean ezkutatu zenean, izan ere, harriak jaurtitzeko ari zitzaizkiren irudi lausoa ikusi ahal izan zuen sasien artetik.

Ilunpetan zegoen, euria ari zuen. Zalantzan dago Ander horregatik. Ondo ikusi ote zuen ala ez zalantzan. Oker ibiliko zen beharbada, ez zen lehen begiradan iruditu zitzaion hura izango. Agian, beste bat izango zen, esan dio behin baino gehiagotan bere buruari. Maketo bat, Garrido bera seguruena, denek dioten gisan. Haren anaia zaharragoek

lagunduta agian, Davidek, kontuan hartzeko modukoa hura ere. Hori da logikoena. Hori sinetsi nahi du.

Izan ere, Anderri ez zaio lagunekin liskarretan aritzea gustatzen. Eta gutxiago hain gertukoak direnekin.

Gaur, esate baterako, ikastolatik irteeran burmanflash batera gonbidatu du Josuk, besterik gabe. Coca-cola zaporekoa, bere gustukoena. Etxeraino lagundu dio gero, nahiz eta bera handik urrun samar bizi den, beheko kalean. Bidean, luze egon dira hitz egiten. Futbolaz batez ere. Josu oso zalea da. Ander ez hainbeste, ez delako oso ondo moldatzen baloiarekin. Hain zuzen ere, hurrengo egunean gera daitezkeela eta kornerrak efektuarekin ateratzen erakutsiko diola agindu dio Josuk.

Bere laguna kalean behera nola urruntzen den begira geratu da Ander etxeko balkoitik. Burmanflash jada urtuak eskuak likits utzi dizkio. Trago batez edan du coca-cola zaporeko ura plastikozko zorrotxotik, irribarre gozo bati eutsi ezinik. Popeye itzultzen denean, maketo horiek txikituko dituzte.